



DATU BABESERAKO PROTOKOLOA

BAIMENAK

Ikasturte hasiera guztietan ikasle guztien familia/legezko tutorearen baimena behar da ondorengoetarako:

- Argazkiak ateratzeko.
- Bideoak grabatzeko.
- Irudi zein bideo horiek eskolako web-gunean zein gure proiekturen baten web-gunean publiko egiteko.

OHARRA: Ikasleren baten familiak baimenik emango ez balu, dagozkion neurriak hartuko dira eskolan (argazkiak ekidin).

FAMILIAK

IKASTURTE HASIERAN AHOZ ZEIN IDATZIZ ERABAKIAK ADIERAZI FAMILIEI:

- Eskolako ekintza zein ikuskizun guztiak eskolan jasoko (argazkiz edota bideoz) dira eta web-orrian egongo dira ikusgai edota familiekin partekatuko dira. Gelaren batean ikasleren batek argazki edota bideoak publikatzeko baimenik emango ez balu, trataera berezia emango zaie talde honen irudiei (ikasle hori grabatzea ekidin).

- Familia kideek ez daukate ekintza berezietan grabatzeko edo argazkiak ateratzeko beharrik, beraz.
- Halere, familia kide batek ekintza berezi batean grabatu edota argazkiak aterako balitu, **eskola eremura mugatu beharko du bere erabilera**, inondik inora ere ez erabilera pertsonalerako (sare sozialak, eskola komunitatekoak ez diren kideekin partekatu, etab.).
- Eskolako ohiko jardunean familiek ezingo dute irudirik jaso (ez argazki ezta bideoan ere).

IRAKASLEAK ETA GAINETAKO LANGILEAK

IRAKASLEEK KONTUTAN HARTU BEHARREKOAK:

- Erabiltzen dugun informazioa ikasleena eta senideena da, baita eskolako langileena ere. Informazio hau arduraz eta pribatutasuna zein intimitatea errespetatuz tratatu behar dira, beti ikasleen babesa lehenetsita.
- Osasuna, hezkuntza-premia bereziak zein alergia/intolerantziei buruzko informazioari berebiziko konfidentziasuna ematea ezinbestekoa da.
- Ezingo dugu, inola ere ez, eskolako matrikulei zein ikaslegoari buruzko informaziorik eman Eskola Komunitatetik kanpoko inori. Norbaitek eskatuko balu, Hezkuntza Sailera deitzeko esango zaio, eta hala badagokio, han emango diote dagokion informazioa.
- Eskolako edozein akta soilik dagokion bilerako kideekin partekatu ahal izango da, sekula ere ez bilera horretatik at dagoen kide batekin. Honez gain, ez partekatzeko eskaera-oharra gehitzea gomendatzen da.
- Ikasleei argazkiak ateratzeko zein bideoan grabatzeko **EZ GENUKE** telefono pertsonala erabili beharko. Berez, eskolako gailu bat erabili behar da. Halere, gurea erabiltzen badugu, dagokion lekuan gorde eta **gure mugikorretik ezabatuko dugu.**

IKASLEAK

IKASLEEI GARBI AZALDU BEHARREKOAK:

- Eskolako gmail kontua SOILIK eskolako kontuetarako erabiliko da.
- Ezingo da eskolako gmail kontua erabili beste aplikazio batzuetan altan emateko.
- Eskolako kontuarekin lotutako txat-ak ez dira erabiliko.
- Norbere pasahitzak etxekeekin partekatuko ditugu soilik.
- Eskolako CHROMEBOOKak ezingo dira erabili elkarri argazkiak atera edota grabatzeko.
- Eskolako zereginekin erlazionatutako web-orrietan ibili ahalko dira soilik gelan Chromebook-ekin daudenean. Beste web orri batzuetan sartzeko, irakaslearen oniritzia beharko da. Hala egin ezean, irakasleekin adostutako ondorioak aplikatuko dira.
- Lehen Hezkuntzako 6.mailako ikasleei aukera emango zaie ikasturte amaieran beraien lan bildumak pendrive batera deskargatu eta etxera eramateko (behin eskolatik joan eta gero beraien kontua ezabatu egingo baita).

KOMUNIKAZIOA

ESKOLA KOMUNITATEKO KOMUNIKAZIOAREN GAKOAK:

- On-line komunikazioa lehenetsiko da. Horretarako, familiei posta kontu bat eskatuko zaie.
- LHko lehenengo mailan ikasle bakoitzari bere kontua zabalduko zaio eskolako domeinuarekin.
- Kontu horren erabilera eskola eremura mugatuko da.
- Eskolako esparru bakoitzak bere helbide elektronikoa izango du: zuzendaritza eta irakasle bakoitza.
- Helbide guztiak eskolako web orrian egongo dira eskuragarri.
- Familia aniztasunari erantzuna emanez, on-line komunikaziorako zailtasunak edota oztopoak dituztenen kasuan, familia bakoitzaren

egoerara moldatuko da eskola (paperean, zuzenean azalpenak eman, etab.).

- Familiekin irudi edo bideoren bat partekatu behar dugun aldi oro, ohar hau gehituko da mezuan: **OHARRA: Eduki hauen erabilera eskola komunitatera mugatuta dago soilik/ NOTA: El uso de estos contenidos se limitarán únicamente a la comunidad escolar.**